

KOSTUEN EGITURA:

Gure negozio-eredua aurrera ateratzekoan prozesu guztietan jasan beharko ditugun kostuekin aurrera ateratzeko gai izan behar gara.

Kostuen egituren ezaugarriak hauek izan daitezke:

1. **Kostu finkoak:** Kostu finkoak beti ordaindu behar izango ditugun kostuak dira, adibidez tren bat ekoizterakoan enpresak bertan erabili beharko duen argindarra edo energia, langileen soldatak... Hauek kostu finkoak izango dira. Gure helburua da lehen fasean, alegia, planifikazio fasean jartzea geure ahalegin handiena, eta hau geure aportazioaren aurrerakin gisara erabiltzea, gero funtsezko elkarteek kostu finko eta aldakorretan ere inbertitzeko.
2. **Kostu aldakorrak:** Aipatu dugun bezala kostu finkoak normalean bai hala bai ordaindu beharreko kostuak dira baina kostu aldakorrak aldiz ez, demagun gure proiektuak aurrera jarraitzeko momentu jakin batean gehigarri bat behar duela, ba gehigarri horren kostua kostu aldakorra izango litzateke, momentu jakin batean bakarrik ordaindu dugulako
3. **Eskala ekonomikoak:** Normala den bezala, guk ekoizten dugun kopurua handitzean kostuen murrizketa lortzen da, adibidez makina batek 1000 helize egin beharrean 10000 egiten baditu guretzat helizeen kostua jaitsi egingo da. Hori batez ere energia erabilgarri enpresari interesatuko zaio, baina prototipo on bat lortu ezker, bi enpresak ere ekoitzi dezakete, batak bere trenetan erabiltzeko eta bigarrenak zabalkunde edo hedadura ekonomikoaz baliatzeko-
4. **Zabalkunde edo hedadura ekonomikoak:** Baliabide berdinak erabili beharra dugu produktu bat baino egiteko, Makina batek pieza mota bat egiteko balio badu eta beste makina batek pieza hori eta gainera beste bi pieza egiteko balio badu, bigarren aukera gehiago interesatuko zaigu etekin ekonomiko hobea aterako dugulako makina horrekin. Helize hauei beste zer erabilera eman pentsa dezake energia-erabilgarri enpresari, eta hala berak kostu finko eta aldakorretan egin duen inbertsioa errekuiperatzeko bidea eginez.